

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2023/2387 iragarkiaren zuzenketa, 93 zenbakidun ALHAOn argitaratua 2023ko abuztuaren 9an, Gorbeia Inguruetako Partzuergoaren azkentzea behin betiko onartzeko erabakia argitaratzeari buruzkoa

Gorbeia Inguruetako Partzuergoaren azkentzea behin betiko onartzeko erabakia oker argitaratu da 93 zenbakidun ALHAOn, 2023ko abuztuaren 9an. Hori dela eta, erabaki zuzena argitaratzen da:

2023ko uztailaren 31ko Alkatetzaren 2023-0352 Ebazpenaren bidez, honako erabaki hau hartu zen:

Idazkari kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria ikusi da. Horren arabera, jendaurrean egon den aldian ez da erreklamaziorik aurkeztu "Gorbeia Inguruak" izeneko partzuergoa desegiteko eta bere aktibo eta pasibo guztiak Gorbeialdeko Kuadrillari lagatzeko erabakiaren hasierako onespeneren aurka.

Kontuan hartu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ezartzen duenez, erreklamaziorik aurkeztu ez bada, ordura arte hasierakoa zen erabakia behin betiko hartu dela ulertzen dela, osoko bilkuraren beste erabaki baten beharrik gabe.

Aipatutako artikulua ematen dizkidan eskumenez baliatuz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.r) artikulua arabera, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA. "Gorbeia Inguruak" izeneko partzuergoa desegiteko eta bere aktibo eta pasibo guztiak Gorbeialdeko Kuadrillari lagatzeko erabakiaren hasierako erabakia behin betiko bihurtzea automatikoki.

BIGARRENA. Erabakiaren testu osoa ALHAOn argitaratzea.

HIRUGARRENA. Udal zerbitzuek erabaki hau Gorbeia Inguruetako Partzuergoari eta Gorbeialdeko Kuadrillari helaraztea, dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA. Erabaki honen kopia bidaltzea Estatuko Administrazio Orokorrari eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikulua betez.

BOSGARRENA. Behin betiko onspen-erabakiaren aurka, honakoak jarri ahal izango dira: aukerako berraztertze-errekurtsoa, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Udal honetako Alkatetzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. Artikuluen arabera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. Artikulua arabera. Aukerako berraztertze-errekurtsoa jartzea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta errekurtsoa berariaz ebazten den arte edo errekurtsoa isiltasunez ezesten den arte.

Ondategin, 2025eko urtarrilaren 10ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA